



AGIRI BATERATUA / 19.11.2019

## Urre meatzaritza, giza eskubideak, eta nahitaezko eginbidea Kolonbian

Gizarte zibilaren ikuspegia, EBren erregulazioa gatazkan dauden mineralen hornidura arduratsuan eta politika publikoaren bestelako gomendioetan ezartzeari buruz

---

Raw Materials Initiative<sup>1</sup> ekimenaren xede nagusia da Europako enpresei lehengaiak bermatzea. Ekimen hori, 2008. urtean aurkeztu zuen Europako Batzordeak, eta 2011. urtean berriro sustatu zuen. Lehen oinarria "[Lehengaien bidezko hornidura eta hornidura iraunkorra merkatu orokorretan](#)" bada ere, giza eskubideak ia ez dira aipatzen meatzaritzaren arloan. Europar Batasuneko lehengaiak hornitzeko politiketan giza eskubideei ematen zaie arreta txiki horri erantzuteko, Europako Parlamentuak gatazkan iturri diren mineralen erregulazio bat bultzatu zuen (hornidura arduratsuari buruzko EBren erregulazioa<sup>2</sup>). Erregulazio hori, 2017. urtean onartu zuten, eta 2021. urtean amaituko da txertatzen.

Erregulazio horrek, gatazka-eremuetan dauden hainbat arriskuri lotzen die, hala nola haur esplotazioari, nahitaezko lanari, nahitaezko prostituzioari eta talde armatuen finantzazioari, lau mineralen (eztainua, tungsteno, tantalioa eta urrea) erauzketaren eta komertzializazioaren esparruan. Urrats garrantzitsua da, betiere legea ongi ezartzen bada.

Hala ere, mineralen erauzketan dauden beste arrisku asko ez dira jasotzen Raw Materials Initiative ekimenean, ezta hornidura kateetako nahitaezko diligentzia politiketan ere. Bestek beste ingurumenaren suntsitzearekin lotutako arriskuak, hala nola ur-iturrien kutsadura edo drainatze azidoa, nahitaezko lekualdaketa, edo segurtasun publikoaren arloko indarrak legez kontra kontratatzea. Horrez gain, "gatazka eremuetatik" edo "arrisku handiko" eremuetatik kanpo gertatzen diren meatzaritzarekin lotuta gatazkek ez ditu barne hartzen legedia honek.

Kolonbia "eskualde gatazkatsu" gisa hartzen den herrialdeetako bat da hornidura arduratsuari buruzko EBren erregulazioan. Dokumentu horretan, Kolonbian egiten den urre erauzketari eta gatazka armatuaren barruan gertatzen ari diren giza eskubideen urratzei erreparatzen zaie. Bestalde, zenbait gomendio ematen ditu, Kolonbian, hornidura arduratsuari buruzko EBren erregulazioari laguntzeko neurriak ezar daitezen. Halaber, beste neurri batzuk ere ematen ditu sektore horretan gizarte eskubideak urratzearekin lotutako arriskuak arintzeko.

Hurrengo orrietan aurkezten den diagnostikoa, zenbait lantegiren eta Kolonbiako gizarte zibileko erakundeek Europako erakundeekin lankidetzan egin dituzten bi ikerketaren emaitza da.

Lehen ikerketan, Instituto Popular de Capacitación (IPC) erakundeak German Watch, Broederlijk Delen, eta Heinrich-Böll Stiftung<sup>2</sup> erakundeekin batera egindakoan, urre-ekoizleak diren hiru departamentu nagusi jasotzen dira: Antiokia, ekoizpen nazionalaren % 46 hortik atera zela 2017an; Chocó, % 21, eta Cauca, % 6. Hiru departamentuek indarkeria-tasa handiak dituzte, gatazka armatuarekin lotuta daudenak. Horrez gain, gizarte arloko lider asko hiltzen dituzte toki horietan. Bestalde, arbasoen meataritza kriminalizatzen eta baztertzen den bitartean, eskala handiko meataritzak ingurumen-kalte larriak sortzen eta giza eskubideak arriskuan jartzen jarraitzen du. EBren erregulazioak ez ditu alderdi horiek egoki barne hartzen.

Bigarren ikerketak<sup>3</sup>, Centro de Investigación y Educación Popular / Programa por la Paz (CINEP/PPP) erakundeak ALBOAN Fundazioarekin batera egindakoak, meataritza-jarduera arautzen duten esparruen eta Kordobako hegoaldean dauden meataritza moten arteko interes-gatazken artean dagoen harremanari erreparatzen dio. Eskualde horrek ur-ekoizpen hobearen arren (estatu osoko % 2 ekarri zuen 2017an), eskala txikiko ustategietan banatuta, gero eta meataritza-emakida gehiago ematen dira eskala handiko proiektuetarako. Horren ondorioz, gizarte-tentsioa handitzen ari da, talde armatuen indarkeriak eta hildako lider kopuru handiak berez eragindako testuinguru batean.

## KOLONBIAKO EGOERA

Azken hamarkadako erabaki politikoek aktiboki sustatu dute lurren baliabideen sarbide eta kontrol desberdina. Horrela, bertako komunitateak kanpoan utzi dituzte, eta ez dute naturaren ondasunak eta lurra eskuratzeko aukerarik. Inbertitzaile pribatuen interesak lehenesten dira, atzerriko enpresa multinazionalenak bereziki.

Inbertsio pribatua meataritza-sektorean laukoiztu da 2002. eta 2011. urteen artean, eta meataritzarekin lotutako gizarte-gatazka ere areagotu dira<sup>4</sup>. Urrea ekoizten duten lurraldeak giza eskubideen urratze handien gain izan dira. 2016. eta 2019. urteen artean, gizarte lider, ingurumeneko ekintzaile eta giza eskubideen defendatzaileen hilketa kopururik handiena Antiokia eta Cauca departamentuetan gertatu zen, Kolonbian urrea ekoizten duten lehen eta laugarren departamentu nagusiak direnak.

### Merkataritza askeko akordioak eta meataritza-proiektuen militarizazioa

Kolonbiaren kasuan, nazioarteko inbertsio akordioek eta merkataritza akordioek (Europar Batasunarekin sinatutako merkataritza ituna) enpresetarako baldintzak hobetzen lagundu dute, besteak beste inbertsioak sustatzeko eta elkar babesteko akordioen (APPRI) eta merkataritza askeko akordioetan jasotzen diren inbertsio-atalen bidez. Horiek, atzerriko inbertitzaileentzat onak diren baldintzak sortu dituzte. Horrela, botere handia lortu dute eta giza eskubideak babestu beharrean, beren interesei lehentasuna eman diete. Izan ere, Kolonbiako Gorteak eskubide horiek babesten ditu, eta nazioarteko auzitegietan Kolonbiako estatuaren aurkako eskeak aurkeztea ekarri du, inbertitzaileen eskubideei lehentasuna ematen diela leporatuta.

Gobernuaren eta multinazionalen arteko aliantza horren barruan, zenbait segurtasun-estrategia diseinatu dira Kolonbian, enpresa horien jardura babesteko. Horrek, barne hartzen du meataritza eta energia sektorea babesten duten 68.000 eragilek osatzen dituzten 21 "Meataritza eta Energia arloko batailoiren" sorreran; baita enpresen eta segurtasun-indar publikoen arteko 1.229 akordioetan ere. Horietatik guztietatik, % 24 meataritza-enpresenak

dira. Esaterako, 5. eta 8. batailak Mineros SA eta Gran Colombia Gold meatzaritza-enpresetako instalazioen barruan kokatuta daude hurrenez hurren<sup>5</sup>.

## Meatzaritza handiaren eta eskala txikiko meatzaritzaren arteko gatazkak eta artisau meatzarien kriminalizazioa

Historikoki urrea ekoizten duten eskualdeetan bizi izan diren meatzariak ez daude onartuta maila politikoan, eta lege nazionalak, hala nola Meatzarien kodeak, haien jarduerak formalizatzen zailtzen du. Jarduteko lizentziarik ez dutenez, artisau meatzariak legez kontrako ekoizletzat edo ekoizle kriminaltzat hartzen dira. Horretaz baliatuz, haien aurkako gerra-estrategia bat erabili dute. Arrazoi horregatik, meatzaritza eta energia arloko batailoiak hedatu ondoren, "meatzaritza kriminal" delako horri erasotzeko egitura polizial eta militarrek sortu dira. 2012an, UNIMIN sortu zen, legez kontrako meatzaritzari aurre egiteko polizial nazionalaren unitate berezia. Urte bereko 2235 dekretuak baimena ematen dio poliziarri titulurik ez duten meatzeetan dauden makinak hondatzeko<sup>6</sup>.

BRCIM, legez kontrako meatzaritzaren aurka borrokatzeko armadaren brigada, 2015ean sortu zen; 2019n, Ivan Duque lehendakariak, mineralen legez kontrako erauzketari aurre egiteko unitate berezi bat sortuko zuela hitzeman zien Kolonbiako Meatzaritza Elkarteko meatze-konpainia handiei, eta baita lege bat sortuko zuela ere, jarduera horiek egiten dituztenei ezarritako zehapenak gogortzeko. Artisau-meatzarien erkidegoek eta elkarteek nabarmentzen dute egitura paramilitar desegin orde, neurri horiek antzinako meatzariak eta eskala txikiko ustiategiak desagerrarazten ari direla, ez bakarrik legezko arloan, lurraldetik ere bai.

### 1. kasua: Gran Colombia Gold eta artisau meatzariak

Gran Colombia Gold, gaur egun, bigarren urre-ekoizlerik handiena da, Gutxierrez nazioarteko komertzializatzailearen atzetik. 2010. urtean Segoviara heldu zenean, eremuan lan egiten zuten 5.000 meatzari aurkitu zituen, eta elkarteko kontratuak proposatu zizkien. Hor, ateratzen zuten urrea eta salmentaren onuraren zati bat enpresari eman behar ziotela jasotzen zen. Hainbat meatzarik kontratu horiek errefusatu zituzten, eta horren ondorioz, grebak, indarkeria eta talde paramilitarren etengabeko mehatxuak egon ziren. Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarrak kasuan esku hartu zuen, eta meatzari batzuei kautela-neurriak bermatu zizkien. 2018. urtean, konpainiak armada, polizia edo "beste edozein indar" erabiltzea eskatu zion ofizialki gobernuari, meatzariez libratzeko. Askok indarkeriarako deitza hartu zuten hori, meatzari informalen aurka, eta gobernuak indarra erabiliz eskatzeko eskaeratzat.

Meatzari azpikontratatuak erauzitako eta Gran Colombia Gold-ek saldutako urrearen ehuneko nabarmen handitu da 2010etik. Horrela, enpresak saldutako urrearen % 83, azpikontratatuak eskala txikiko meatzariengandik etorri zen. Konpainiak gobernuaren meatze-emakida berriak jasotzen dituen heinean, nahitaezko lekualdaketek eta giza eskubideen beste urratze batzuek handitzen jarraitzen dute Segoviako meatzaritzako urre-eskualdean. 2018an, Antiokia departamentuko (-125 udalerrri dituen) nahitaezko lekualdaketen % 62k Bajo Cauca azpieskualdeko 6 udalerritan gertatu zen. Konpainiak han jarduten du (ikusi Bentancur Betancur, 2019).

## Artisau meatzarien zailtasunak beren jarduera formalizatzeko

Meatzaritza sektore informalaren tamaina Kolonbian argi geratu zen Meatzaritza Ekoizpen Unitateen (UPM) azken erroldan, Meatze eta Energia Ministerioaren (MME) formalizazio zuzendaritzak 2011. urtean egindakoa. Urre-ekoizle gisa erregistratutako 4.134 UPMetatik, % 87k ez zuten meatzaritzarako titulurik. Hori argi ikusten da urre-ekoizleen departamentuetan. Hor, informaltasuna % 80koa Antiokian, eta % 99koa Chocón.

Bestalde, meatzariak legezko bihurtzen saiatu dira, baina gehienek ez dute arrakastarik izan. Herriaren Defentsa Erakundeak egindako azterlan baten arabera, jarduera meatze titulu baten bidez formalizatzeko aurkeztutako eskaeren % 86 baztertu zituzten.

Bajo Caucako (Antiokia) Meatzarien Elkartearen arabera, 1.200 meatzaritza ustiategi informal inguru daude, eta hor, 45.000 pertsona inguruk lan egiten dute. Eskualdeko gobernua haien zati handi bat formalizatuko duela hitzeman du, baina 2015. urtean, prozesua hasi zuten 150 meatzaritza-unitateetatik, ez zuen inork lortu legezko bihurtzea. Izan ere, formalizazio-prozesuaren azken fasean, meatzari askok armadaren jarduketak jasan dituzte, eta hor, makinak hondatu dizkiete.

Horrez gain, artisau-meatzeen ekoizteko gaitasuna, erregistratuta badaude ere, mugatua da. "Barekeroak" direlakoek hilero 35 gramoko metal preziatu bakarrik ekoiz dezakete, 420 gramo urtean, 2017ko 40013 Ebazpenaren arabera. Horrek erakusten du, 2011ko azken erroldatik, meatze politikek gehiago sakondu dutela baztertzeko eta kriminalizatzeko hamarkada osoan.

### 2. kasua: Mineros S.A. eta ingurumenaren narriadura

Meatzaritzako enpresa honen proiektua Bajo Cauca azpieskualdean dago, Antiokiako departamentuan. Kolonbiako ekoizpenaren % 85 Nechí ibaiaren arroan eta haren hezeguneetan jarduten duen alubioi meatzaritzako proiektutik dator, gutxi gorabehera 37,000 hektareako eremuan. Meatzaritzak ekosistemetan dituen eraginei buruzko zenbait azterlanen arabera, alubioi urrearen eta lurpeko urre harien ustiapenak eragin handiagoa dauka, beste erauzketa-jarduera batzuekin alderatuz<sup>7</sup>. Orain arte, jarduerak ingurumen-eragin larriak izan ditu, eta bertako biztanleen bizitzan eragin du:

1) Merkurio kutsadura: Mineros SAk 2013. urtera arte erabili zuen merkurioa. Kutsatutako urek ez dute eragiten bakarrik udalerrietan zuzenean; ekosistema osoan eragiten dute, garrantzi estrategikoa duena kontserbazio ekologikorako.

2) Hezeguneak desagertzea, flora eta fauna suntsitzea: Bertako agintarien arabera, hezeguneen atzeraelikadura naturalaren % 80 gutxienez desagertu da. Kutsatzaileen karga dela eta -sedimentu eta solido esekien kopurua-, eskualdeko hezegune zaharretan bizi zen faunaren zati handi bat desagertu da.

3) Ondorioak lurra izateko eskubidean eta lanerako eskubidean: 60 urte baino gehiago ibaiaren hezeguneetatik bizi izan diren erriberetako komunitateak lekuz aldatu behar izan ziren enpresa heldu zenean. Mineros SAren eta eskualdeko meatzari informalen jardueren ondorioz ura kutsatu zen, eta dagoeneko ezin da arrantza egin. Bestalde, nekazariek ezin dute landu erriberetako lurra, lehen oso emankorra zena (ikusi Bentancur Betancur, 2019).

## Talde neoparamilitarrek etekina ateratzen dioten legez kontrako meatzaritzari

Talde neoparamilitarrek (Autodefensas Gaitanistas, Caparrapos, Clan del Golfo), ELN-k eta antzinako FARCen disidentziek FARCEk aurretik jardun zuten lurraldeak hartu dituzte. Estatuak ez du eraginkortasunez lan egin lurralde horiek babesteko eta talde paramilitarrei armak kentzeko. Segurtasun bermatzaile gisa duen eginkizunetik urrun, Estatuak meatzaritzako eragilea sustatzeak, eta urreak nazioarteko merkatuan duen prezio altuak, urrearen ekonomia beren finantzak elikatzeko modu bat gisa hartzera behartu ditu talde armatuak. Horregatik hain zuzen ere hasi dira gerrak.

Kasu gehienetan, talde horiek ez dituzte irabaziak lortzeko ekoizle zuzen gisa, baizik eta ekoizle txikiei estortsio eginez, edo sargaien (lehegailuak, merkurioa eta abar) merkaturia eta urrearen merkatu bera kontrolatuz. Hori dela eta, zuzeneko ekoizleak ez dira kriminalak.

Kriminaltasuna egitura armatuetan sortzen da, zenbait jarduerari etekina ateratzen diotenak ekoizpen-katean edo mineralak nahitaezko diligentsia estrategiak ezarri gabe esportatzen dituzten nazioarteko komertzializatzaileengan, ikertzen ari diren kasuetan aktiboki esku hartzen duten bitartean. Bestalde, aktiboak garbitzen ibiltzen dira (ikus IC Gutierrezen kasua)

Artisau-meatzarien eta eskala txikiko meatzarien gaur egungo tratamenduak, estigmatizatu eta kriminalizatzen ditu, herritar gisa duten gizarte-izaera gutxiesten du eta historikoki lurraldean egotea gaitzesten du. Urrearen ekoizpen-katean sortutako balioa kontzentratzeko joera historikoa sakontzen du, eta enpresa handien, nazioarteko komertzializatzaileen eta nazioarteko mailako findegi handien eskuetan geratzen da. Ez dakite urre hori nondik datorren, ez eta erauzten den lurraldeetan giza eskubideak urratzen diren ere.

Hornidura arduratsuari buruzko Europako Arautegiak bazterkeria egoera hori okerragotu lezake egoeraren alderdi batzuei bakarrik erreparatzen bazaie eta giza eskubideen eta lurrerako eskubidearen gaineko eragin orokorrak ez baditu kontuan hartzen. Horrenbestez, ezinbestekoa da nahitaezko diligentsiarekin lotutako ekimenak egitea, giza eskubideen eta ingurumen eskubideen arau guztiak barne hartzen dituztenak.

Horrela, ekimen hauek, giza eskubideen urratze larriak eta urrea bezalako mineralak sortzen diren lurraldeetan ingurumenaren hondatzea nabarmen murrizten lagun dezakete. Horrez gain, legedi horiekin batera neurri osagarri eta eraginkorrak ere behar dira.

## Talde etnikoen eskubideak eta kontsulta prozesuak

Talde etnikoen aurretiko kontsultarako eskubideak, Meatzaritzako Kodean jasotakoak, komunitateko kontsultak egiteko aukera jasotzen du, lege eta administrazio neurriak planifikatzen direnean, meatze proiektuak, obrak eta zuzenean edo zeharka lurraldeetan eragiten duten beste jarduerak batzuk barne hartuz.

Mekanismo horren xedea da komunitate horien kultura, gizarte eta ekonomia osotasuna babestea, baita parte hartzeko eskubidea ere. Hala ere, aurretiko kontsultak kritika asko jaso ditu, eta gehienak eskubidea, kapitala garatzean, giza eskubideak bermatzean baino funtzionalagoa delako izan dira. Puntu hauetan dira batik bat egindako kritikak:

❖ Komunitate etnikoek meatzaritzari ezetz esateko eskubidea ez da jasotzen kontsulta-prozesuaren zati bat gisa, beste jarduerak ekonomiko batzuetan aritzeko<sup>9</sup>.

- ❖ Erabakiak hartzeko prozesu bat baino gehiago, askotan, eskubide hori, enpresek eta Estatuak guztiz kontrolatzen duten informazioa hedatzeko prozesu bat baino ez da, eta horren bidez, komunitateen eskaerak eta autodeterminaziorako eskubidea despolitizatzen dira<sup>10</sup>.
- ❖ Eskubide horretaz baliatzeko aurretiko urrats batek proiektuaren eragin zuzeneko eremua mugatzea eskatzen du, hala ere, alde nabariak egoten dira normalean komunitateentzat lurralde horretan geratzen denaren, eta enpresek edo Estatuak oro har egiten dituzten balioespen murriztaileen artean<sup>11</sup>.

### 3. kasua: San Matias proiektua eta kontsultarako eskubidea

San Matías proiektua Puerto Libertadoren, Kordobako hegoaldeko departamentuan, gutxi gorabehera 20.000 hektareako eremua barne hartuko du. Hor, Minerales Córdoba SA enpresak, urrea, kobrea, eta horiekin lotutako beste mineral batzuk ateratzeko asmoa du hurrengo urteetan.

Proiektu horretan, alderdi gatazkatsu ugari daude. Horietako batek, eskubide etnikoak bermatzearekin zerikusia du, erkidegoen eta meatze-konpainiaren arteko negoziazioaren barruan: III-08021 meatze tituluak 391 hektareako eremua barne hartzen du. Lurralde hori, zati batean, San Juan de Asísen barruan dago, eta hor, San Pedroko kabildo zenú dago, Alto San Jorgeko Erreserba Indigena Zenuko zati bat dago.

2018ko maiatzean, Cobre Minerals S.A.S. enpresak (meatzaritza-tituluaren jabea zen enpresa, Minerales Córdoba S.A. enpresari saldu aurretik) jakinarazpen bat jaso zuen Barne Ministerioaren eskutik. Hor, San Pedroko kabildo indigenako komunitateek aurretiko kontsultako prozesu bat izateko eskubidea zutela adierazten zen. Hala ere, lurraldean bizi diren komunitate indigena zenuetarako, prozesu hori ez litzakete bakarrik egin behar San Pedroko kabildo indigenan, Minerales Córdoba S.A. enpresak hasi nahi duen aire zabaleko meatzaritza-proiektuak hasierako emakidakoak baino askoz ere handiagoa den eremua hartuko duelako, eskualdeko komunitateetan nabarmen eraginez. Horien artean, etnia indigena zenuko kideak daude, baina baita Emberá Katío etnia indigenaren zenbait familia ere.

Enpresak aurretiko kontsulta-prozesu bat egiteko prest dagoela berretsi duen arren, bertako komunitateen artean gero eta ondoez handiagoa dago. Zenbait hamarkadatan jazarpen eta mehatxuak egonda, prozedura judizialak egitearekin, komunitateek ez dute espero enpresa pribatuek eta Estatuko erakundeek, maila nazionalean bereziki, beraien eskubideak errespetatu eta bermatuko dituztenik, konpentsazio prozesuekin eta berrezarpenarekin beti dagoelako arriskua. Beldur dira hain zuzen ere proiektua handia delako eta enpresarekin elkarriketa informalak izan dituztelako. Bestalde, orain arte erabilitako estrategiak, komunitate indigenak eta nekazariak banatzeko izan dira.

## GOMENDIOAK

### Gomendio orokorrak

- Gaur egungo lege-esparruak giza eskubideak eta ingurumena babesteko nahikoa eraginkorrak ez direla kontuan hartuz, eta hornidura arduratsuko ikuspegi lotesleek meatzaritzako enpresek eskala handian egindako gizarte eskubideen urratze gehienak ez dituztela barne hartzen aintzat hartuz, hala nola Europako Hornidura Arduratsuari buruzko Arautegiak ("gatazka iturri diren mineralen horniduran nagusiki, nahitaezko diligenziako legedi konplexuagoak egin behar dira. Nahitaezko diligenzia kontzeptua, Nazio Batuen Printzipio Gidarietan oinarritutakoa, zintzoki jaso behar da legedi lotesleetan, mineralak inportatzen dituzten herrialdeetan. EBk eta bere estatu kideek, beraz, beren irismenean zabalgoak diren eta betebeharrak lotesleak ezartzen dituzten nahitaezko diligenzia-legediak garatu eta txertatu behar dituzte.
- Dokumentu honek erakusten duen moduan, legedi horiek ingurumen-estandarrak barne hartu behar dituzte ekosistemak honda ez daitezen, eta bizitzan eta giza eskubideetan eragin bera izan dezaten.
- Enpresek gardentasunaren edo harreman publikoen arloan egindako ekimenek ez dituzte ordezkatu behar nahitaezko diligenziako erronkak eta betebeharrak, edo konponketa integraleko estrategia Kolonbian eragindako erkidegoetarako.
- Jadanik adierazi denez, enpresen interesek lehentasuna dutenez giza eskubideen babesaren aurretik, nazioarteko merkataritza akordioengatik, EBren eta Kolonbia, Ekuador eta Peru arteko Merkataritza Akordioaren barruan, jarraipen egokia eman behar zaio merkataritza eta garapen iraunkorrari buruzko IX. kapituluan, Barneko Kontsulta Taldearen bidez (GCI). Horrela, arreta berezia jarri behar zaie meatzaritza-ekoizpenaren gizarte eta ingurumen baldintzei, ez badira betetzen, zehapenak ezarriz.
- Horrez gain, Estatuak modu konstruktiboan lagundu behar dute Enpresa eta Giza Eskubideei buruzko Nazio Batuen Itun Loteslea egiteko prozesuan. Itun hori, bosgarren negoziazio txandan eztabaidatutako zirriborroak oinarrituta dago (2019ko urria).

### Hornidura arduratsuari buruzko EBren araudia txertatzearekin zerikusia duten gomendioak

Hornidura arduratsuari buruzko Europako arautegiak bide zuzenetik aurrera egin dezan, ezinbestekoa da laguntza neurriek giza eskubideak sustatzeko ezinbestekoak diren alderdiak kontuan hartzea, hala nola mineralen jatorrizko eremuetan artisau ekoizleen bazterkeria handiagoa saihestea. Beraz, garrantzitsua da mineralak ekoizten dituzten herrialdeetako gizarte zibilaren erakundeek laguntza neurriak prestatzen parte hartzea, ekoizpen horien eskubideak defendatuz. Horrez gain, puntu hauek ere kontuan hartu behar dira:

- Azterketa horretan oinarrituz, eta Europar Batasunaren laguntza-neurrietan ezarritako helburuari jarraituz, meatzari txikiei laguntzeko, aktiboki sustatu beharko litzateke ekoizle txikiak formalizatzekeo prozesua, beren produktuak merkatu formalizatu eta legal batean saltzeko aukera emateko.

- Programak ezarri beharko lirateke enpresa inportatzaileekin lankidetzan, ekoizpen tradizionalen eta bertako ekoizleen lehengaiak inportatzera mugatuz. Horrela, azkenak indartuko dira, formaliza daitezten.
- Baliabideak esleitu behar dira nahitaezko diligentziari buruzko arautegia txertatzeko proiektu pilotuak garatzeko, ingurumen, osasun eta giza eskubideen alderdiak barne hartuz. Proiektu pilotu horien emaitzak kontuan hartu behar dira etorkizunean Europa Batasuneko arautegia berrikustean.

### Kontrolatzea:

- EBk ebaluazio-sistema bat ezarri beharko luke, herrialde ekoizleetan, laguntza-tresnak ELGA/EBren nahitaezko diligentziari laguntzeko tresnak aplikatzean zer aurrerapen lortu diren neurtzeko.
- Laguntza neurrien zati gisa, EBk txosten independente bati esleitu beharko litzioke baliabideak, gizarte zibilaren ikuspegitik, gatazkek eragindako eta arrisku handiko eremuetatik datozen mineralen hornidura-kateen kudeaketa arduratsurako nahitaezko diligentziari buruzko ELGaren orientazioak aplikatzeko. Txosten hori, ELGaren Foroan aurkeztu beharko litzateke.
- Arauaren kontrolatzeko politikak egoeraren azterketa parte-hartzaileko baldintza bat barne hartu behar du, meatzaritzaren alderdiei, gatazkari, lurraldeei eta ingurumenaren babesari buruzkoa, nahitaezko diligentzia prozesuan ezarritako auditoretza prozeduretan.

### Gardentasuna:

- Europako legedia aplikatuz, nahitaezko diligentzia aplikatzeari buruzko banakako enpresen txostenak argitaratu behar dira, haiek betetzen direla egiaztatzen duten baliabideak ere barne hartuz. Txosten horiek, eskumeneko agintariaren webgunean argitaratu behar dira, herrialde ekoizleen gizarte zibila eskumeneko enpresa eta agintariekin harremanetan jar dadin meatze-aztarnategi batean irregulartasunak ikusten dituztenean.

### Kolonbiako gobernuarekin izandako elkarrizketa politikoan, Europar Batasunak eta bere estatu kideek:

- Kolonbiako gobernuari eskatu beharko liokete Bake Egonkor eta Iraunkor baterako Akordioan ezarritako agendaren arabera joka dezala, esportatutako mineralak gatazka iturri diren eremuetatik ez etortzeko gutxieneko baldintza gisa.
- Kolonbiako gobernuari eskatu beharko liokete premiaz esfortzu handiagoa egin dezala giza eskubideen eta ingurumenaren defendatzaileak babesteko; baita FARCen borrokalari ohiak ere, eta Informaziorako, Partaidetza Politiko eta Publikorako eta Latinoamerikan eta Karibbean Ingurumen arloko Justiziarako sarbideari (Escazuko konbentzioa<sup>12</sup>) buruzko eskualde akordioa berrets dezala.
- Kolonbiako estatuari gogoratu beharko liokete zer erantzukizun dituen giza eskubideen, printzipio gidarien nazioarteko itunen, Enpresa eta Giza Eskubideei buruzko Ekintza Plan Nazionalaren barruan. Bestalde, komunitateak nahitaez babestu behar dituela enpresek egiten dituzten giza eskubideen urratzeetatik ere.



## Kolonbiako Estaturako gomendioak

---

*Artisau meatzariak eta eskala txikikoak ekoizpen-kateko eragile garrantzitsu gisa baztertu dira, beraz, Estatuari dagokio onarpen eta txertatze prozesuan laguntzea hornidura kate formalean, ingurumena errespetatzen duten meatzaritza-jarduerei buruzko ezagutzetan sakon, eta beren gizarte-erantzukizuna ager dezaten, zer estrategia garatuko dituzten adieraziz.*

---

- Egiaren Batzordearentzat, erantzukizunari eta gatazkak meatze-lurraldeetan dituzten eraginei buruzko egiak lehenetsuna izan behar du.
  - Enpresak meatzaritzako lurralde jakinetan giza eskubideak urratzen dituzten kasu zehatzen dokumentazioa erabiliz.
  - Kasuak Egiaren Batzordean aurkeztuz, meatzaritza lurraldeetan azken 50 urteetan zer gertatu den argitzeko.
- Ingurumenaren defentsak meatze-politika berri bat eraikitzeke oinarria izan behar du, eta meatze tradizio luzeko lurraldeetan inklusio eta birmoldaketa estrategia batekin batera joan behar du, nekazaritza-lurraldeetan meatzaritzako proiektuak sartzea blokeatzeko, ekosistemak arriskuan dauden tokian.
- Meatzaritzako politika berri hau eraikitzeke prozesuak demokratikoa izan behar du, eta ezin da errepikatu gatazkak eragindako ezbeharrak, lurraldeko autonomia eta bertako ekoizleak legezko hornidura-katean sartzea.
- Horrek, barne hartzen du erauzketaz harago doazen beste bizitza-eredu batzuk eraikitzeke eskubidea. Eskala ertain eta txikiko meatzariak sortutako balioa onartzuz, baita barekeroek direlakoak sortutakoa ere, eta haien hezkuntza eta gizarte eta ingurumen erantzukizunak betetzeko konpromisoa sustatuz.

## Komunitate etnikoen eskubideak:

- Erabakiak hartzeko prozesuek herri indigena eta nekazarien komunitateen eskubideak errespetatu behar dituzte, lurraldeko eskubidea bereziki. Ustiapen eta erauzketa ekintzak egin aurretik, ezinbestekoa da bertako komunitateen ahalduntzea eta babesleku indigenak eratzeko, hobetzeko eta saneatzeko prozesua erraztea.
- Meatzaritza-proiektuek eragindako komunitateen artean aurretiko kontsultak garatzea sustatu behar da fede onez. Kontsulta-prozesuan nahastuta dauden komunitateei ezetz esateko eskubidea errespetatzea.
- Komunitateko babesari dagokionez, ezinbestekoa da Estatuak, bai maila nazionalean, bai bertako mailan, 2018ko 660. Dekretuan barne hartzen diren prebentzio eta babes kolektiboko programak garatzea.

## AZKEN OHARRAK

1. [https://ec.europa.eu/growth/sectors/raw-materials/policy-strategy\\_en](https://ec.europa.eu/growth/sectors/raw-materials/policy-strategy_en)
2. 2017/821 arautegia (EB), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2017ko maiatzaren 17koa. Horren bidez, nahitaezko diligenza betebeharrak ezartzen dira hornidura katean, Europar Batasuneko ezta, tantalo eta tungstenoko, haien mineralen eta gatazkek eragindako eta arrisku handiko eremuetatik etorritako urre inportatzaileentzat (ikusi <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/EN/TXT/?uri=OJ:L:2017:130:TOC>)
3. Betancour Betancour, María Soledad, *Producción minera, territorio y conflicto en Colombia. Retos globales y locales para la protección de los derechos humanos*, November 2019.
4. Lautaro Medina et al. (2019), *Minería de oro y comunidades locales del Sur de Córdoba, el caso de la mina El Alacrán*, November 2019.
5. Vélez-Torres (2013): *Governmental extractivism in Colombia: Legislation, securitization and the local settings of mining control*. In: *Political Geography*. 38. lib., 68-78. or.
6. Castro, Ivan Cepedes (2015) *Convenios entre empresas del sector minero-energético y fuerza pública*. Ikusi: <http://www.ivancepedacastro.com/wp-content/uploads/2015/11/DEBATE-CONVENIOS.pdf>
7. Meatze eta Energia Ministerioaren arabera, legez kontrako meatzaritza da meatzaritzako erregistro nazionalen izena eman gabe garatzen dena (Meatze eta Energia Ministerioa, 2012: 40).
8. Ayala Mosquera, Helcías José, et al. (2019). *Identificación y análisis de impacto de la actividad minera y la explotación ilícita en los ecosistemas del territorio nacional*. Hemen: <http://www.humboldt.org.co/images/documentos/3-identificacin-de-impactos-expertos.pdf>
9. Martínez, Mario; Peña, Juliana; Calle, Marcela & Velásquez, Fabio. (2013). *La normativa minera en Colombia*. Bogota: Kolonbiako Foro Nazionala, 3. or.; Murtzia, Diana. (2014). Proiektuen eta haien prozeduren aurretiko kontsultarako eskubidearen azterketa kritikoa. Hemen: *Revista Semillas 55/56.54-59*. Bogotá: Grupo Semillas.
10. Ulloa, Astrid. (2014). Geopolíticas del desarrollo y la confrontación extractivista minera: elementos para el análisis en territorios indígenas en América Latina. Hemen: *Extractivismo minero en Colombia y América Latina*. (Editors). Göbel, Barbara & Ulloa, Astrid. 426-458. Bogota: Ibero-Amerikanisches Institut & Kolonbiako Unibertsitate Nazionala.
11. Rodríguez, Gloria. (2008). La consulta previa, ¿Oportunidad o amenaza? Hemen: *Revista Semillas 36/37*. 11-16. Bogota: Grupo Semillas.
12. Escazúko Konbentzioak informazioa ikusteko, partaidetza publikoko eta justiziarako eskubidea ezartzen du ingurumen arloan, eta ingurumena defendatzen dutenak babestu behar dituela ere jasotzen du. Zoritzarrez, Kolonbiako gobernuak ez sinatzea erabaki zuen, dagoeneko xede hori lortzeko aukera ematen duten nazioko eta nazioarteko tresnak badaudelako. Ikusi: Aste jasangarria, 2019/10/09. Hemen eskuragarri: <https://sostenibilidad.semana.com/medio-ambiente/articulo/colombia-no-firmo-el-acuerdo-de-escazu/47010>